

# **ALEGIAKO** **ORRIE**



2023KO MARTXOA • ARGITARATZAILEA: ALEGIAKO UDALA • DISEINUA ETA INPRIMAKETA: GARAIKO

## **Jasangarritasunaren bidea jarraituz**

**2/3**

TXANPONAREN  
AURKIA ETA  
IFRENTZUA

**6**

ALEGIAKO  
XARMA  
BERRESKURATZEN

**7**

EDUKIONTZI  
BIDEZKO  
BILKETA

**8**

ASFALTATZE LANAK  
EGIN DIRA  
JARRI ORDUKO BOTATA  
TOKIKO ENERGIA  
KOMUNITATEA

# Txanponaren aurkia eta ifrentzua

Neguko kultur egitarauak aurrera darrai, baina Udalak hausnarketa egin nahi du bolondresgabeziak eragin dezakeenaren inguruan

**A**zken hilabeteetan sartua da neguko kultur egitaraua. Martxoaren 31ra bitartean hainbat ekintzez gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Urtero bezala, Udalak bat egingo du egun horren bueltan Eztanda talde feministak antolatuko dituen ekintzekin.

Egitarautik kanpo dagoen ekitaldi bat egingo da martxoaren 12an, igandez. 'Alegian Berdin Ekin' izeneko jardunaldia egingo da, kirola ardatz hartuta. Kirolean ematen diren jazarpen, sexismo, arrazakeria eta LGBTIfobiaren aurka posizionatu eta ariketa fisikoa eta kirol jarduerak berdintasunerako aukera gisan ulertzeko bidea egitea izango da egunaren helburua. Goiz osoan zehar jarduera ezberdinak egingo dira eremu ezberdinetan eta 13:00ean plazan egingo den ekitaldi batekin borobilduko da. Ekitaldi hau Alegiako Hezkidetzeta mahaia antolatu du. Mahai hori Udalak, herriko ikastetxeetako guraso elkarteek, ikastetxe horietan berdintasunaren arloaz arduratzen diren irakasleek eta Eztanda talde feministak osatzen dute. Proiektuaren gidaritzza Eiherak darama.

Martxoaren 14an, asteartea, Ahoz Aho jaialdiaren egitarauaren baitan biltzen den ekitaldi bat izango da liburutegian. Martha Escudero eta Marta Alzatek 'Mexikoko istorioak' izeneko haurrentzako ikuskizuna eskainiko dute 17:00etatik aurrera. Hilaren 23an, osteguna, Alegiako


## ALEGIAKO IRAKURLE TALDEA

2023 // Lehen saioa

**BAR GLORIA**  
Nerea Ibarzabal Salegi  
(Susa, 2022)

Martxoak 23, osteguna  
18:00etan liburutegian

Dinamizatzailea:  
Amaia Goikoetxea Orbegozo



Irakurle Taldeak urteko lehen saioa egingo du. Nerea Ibarzabalen 'Bar Gloria' liburua aztertuko dute 18:00etatik aurrera liburutegian, Amaia Goikoetxeak dinamizatuko duen saioan. Gogoan izan, irakurle taldeko saioetan edonork hartu dezakeela parte eta ez dagoela aurrez liburua irakurri beharrik.

Martxoaren 24an, ostirala, Beatriz Egizabalek 'Magma Mia!' izeneko bakarriketa eskainiko du 22:00etan zinean eta egitaraua borobiltzeko, martxoaren 31n Sutarri dantza taldearen emanaldia izango da 22:00etan zinean.

Udalak herritarrak ekintza hauetan parte hartzera animatu nahi ditu.

### Bolondresak

Jakina den moduan, Alegiako Kultura batzordean antolatu eta diseinatzen dira urte garai ezberdinetan egiten diren kultur egitarau horiek. Hainbatetan Udalak bere kanalen bidez gogorarazi duen moduan, batzorde horretako ateak zabalik daude bertako kide izan nahi dutenentzat edo baita proposamen edo ekarpenen bat egin nahi dutenentzat ere. Egun bertako kide diren pertsonak ahalegin handia egiten dute ekitaldiak prestatzeko eta antolatzeko. Baina noski, tamaina handiko ekintzak antolatu eta garatu ahal izateko, batzordea osatzen duten pertsona kopurua baino handiagoa behar da guztia segurtasunez egin ahal izateko.



Ekitaldi mota hori antolatzeko bolondresen laguntza eskatu izan du batzordeak. Duela hainbat urtetik hona, esku bat botatzeko prest dagoen bolondres kopuruak nabarmen egin du behera eta horrek zaildu egiten du ekitaldi handiak egin ahal izatea. San Silbestre krosa, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera eta errege kabalgata dira horietako batzuk.

Bolondres eskasiak ekitaldi horiek beste modu batera antolatu behar izatea eragin du, kasu batzutan ibilbideak laburtuz. Horren aurrean, mezu argi bat eman nahi da. Bolondresak eskatuz egiten diren hurrengo deialdietan ez bada behar besteko kopururik osatzen, Kultura batzordeak ekitaldiak formatu txikiagoan egitera edo hainbat kasutan, ekintzak bertan behera uztera behartuta ikusiko du bere burua.

Ez dira antolakuntza konplexua eskatzen duten ekintzak. Behar bezala egin ahal izateko jende kopuru bat biltzea da gakoa. Modu horretan, bakoitzak lan gutxiago egin beharko du eta batzordeko kide diren pertsonak ere arindu bat somatu dute beraien lanean.

#### **Kantu Eske Herrikoiak**

Txanponaren beste aldean Txintzarri Abesbatza Kultur Elkarteak gabonetan eta Agate Deunaren bezperan antolaturiko Kantu Eske Herrikoiek izan duten arrakasta dago. 2022ko uztai-lean bere jardunari amaiera eman zion abesbatzak baina orduan aurreratu zuten moduan, urteko garai ezberdinetan ekintza puntualak egiteko asmoari eutsi diote.

Bada, herritarrei beraiekin abesteko gonbidapena luzatu zieten bai abenduaren 24an eta baita otsailaren 4an



ere. Herritar talde handi batek egin du bat ekimen hauekin eta bi hitzordu horietan talde handiak ikusi dira herriko kaleetan kantuan. Agate Deunaren bezperan gainera, herriko musikari ezberdinak ere batu zitzaizkien.

Udaletik eskerrak eman nahi zaizkio Txintzarri abesbatzari herritarren parte hartzea modu horretan sustatu duten ekintzak antolatzea-gatik eta aurrera begira, bide horretatik jarraitzera animatu nahi dira, bai antolakuntzan diharduten abesbatzako kideak eta baita, antolatu diren ekimeneetan parte hartu duten herritarrak ere.

# Jasangarritasunaren bidea jarraituz

Energia berriztagarriak, ingurumena, hirigintza eta berdintasuna ditu ardatz Udalak 2023rako onartu duen aurrekontuak

**A**legiako Udaleko osoko bilkurak 2022ko abenduaren 21ean onartu zuen 2023ko ekitaldirako udal aurrekontua. Urte honetarako ustezko sarrerak 2.480.677€ra iritsi daitezkeela aurreikusi da; hau da, iaz baino 219.815,74€ gehiago, %9,71. Sarrera horietako igoerarik esanguratsuena Foru Funtsetik eratorria izango da, 1.443.447€koa, 2022koa baino %3,46 handiagoa.

'Next generation' laguntzen bidez Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako hainbat inbertsio gauzatuko dira udaberrian. Alde batetik, auto elektrikoentzako karga puntu bat jarriko da eta bestetik, Tokiko Energia Komunitatearen inguruko urratsak ere emango dira. Argitalpen honen azken orrialdean duzue honen inguruko informazio gehiago. Aipatu egitasmo horiek %100ean finantzatuta datoz baina herrian sortu ditzaketen aldaketa edo konponketa txikiak Udalaren kontura izango direla aurreikusten da.

Energia berriztagarrien alorreko plangintzan aurrera eginez, Bazurka industriaguneko argiteria berrituko da aurten, bertako kontsumo gastua murrizteko asmoz. Horrek, gastu ekonomikoa murriztearekin batera, CO<sup>2</sup> isurketak ere jaitsiaraziko ditu. Ere

horretan bertan egin beharreko zozlatazte lanak ere aurrekontuan jasota daude. Alor honekin amaitzeko, energia eta hornikuntza orokorren iguera %10ekoa izatea aurreikusi da.

Ingurumenari buruz, gastuaren iguera bat emango dela somatzen da, tamalez. Herriko landa eremuetan kable erreketak gero eta gehiago dira eta obretako hondakinak ere gero eta leku eta kopuru handiagotan nabaritu dira. Gastu horri beste 4.000 euro ere erantsi behar zaizkio, jokabide eta jarrera oker eta gaitzesgarrien eritimoa ez bada murrizten. Ibai garbiketan jada denbora daraman Urzain taldearekin aurreko urteetako lan ildoei eutsiko zaie, urte osorako diseinaturiko plangintza gauzatuz.

Azaroan erabakitako hondakin bilketa sistema aldaketak ere gastu batzuk sortuko ditu. Horietako batzuk urtero ordaindu beharrekoak dira baina beste asko momentuan bertan egin beharrekoak. Horiei aurre egiteko 20.000€ko kopurua bideratu da aurrekontuan.

Horrekin lotuta, gastu horien eta giza ongizatearen mesedetan, norbanakoen zein auzo konposterako eta kontzientziaziorako kanpaina bat martxan jartzea ere badago Udala-

ren asmoen barruan. Horrek hasieran gastu bat eragingo du baina epe luzera, hondakinen sorreran gastu eta kilo jaitsiera bat ekarri beharko luke eta bide batez, Lurzoru Kutsatuen 7/2022 Legea betetzea.

Larraitz auzoko ekialdea eraberritzeko prozesuan herritarrei aukera ezberdinen arteko hautu aukerak eman ahal izateko ere gastatu zen diru kopuru bat 2022an. Aurtengoari begira, gauzatze lan teknikoek pisu handia izango dute. Lanak finantzatu ahal izateko beste diru bada udal altxortegian; horrenbestean, proiektua osatzeko derrigorrezkoak diren ikerketak egiteko inbertituko da.

Berdintasunaren inguruan ere badira berrikuntzak. Izan ere, aurten zabalduko da Tolosan eskualde osoari zerbitzua emango dion Emakumeen Etxea eta Alegia bertako partaide izango da.

Aurreko urteetan Covidak eragindako gastu bereziak alde batera uzteko aukera izango da aurtengoan baina bizi dugun krisialdi orokorra herria kolpatzen ari denaren zantzuak ditu Udalak. Horrenbestean, kreditu globalaren kopurua igotzea onartu da. Gizarte zerbitzuetarako aurreikusitako kopurua handitu beharko balitz, bada horretarako nahikoa tarterik.

**Sarrerak****2022****2023****A) Eragiketa arruntak**

1. Kap.	Zuzeneko zergak	473.300,00	507.600
2. Kap.	Zeharkako zergak	20.000,00	20.000,00
3. Kap.	Tasak eta bestelako zergak	217.104,00	298.930,00
4. Kap.	Transferentzia arruntak	1.549.257,26	1.652.947,00
5. Kap.	Ondare sarrerak	1.200,00	1.200,00

**B) Kapital-eragiketak**

6. Kap.	Inbertsio errealak besterenganatetik eta hiri-gintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk	0,00	0,00
7. Kap.	Kapital transferentziak	0,00	
8. Kap.	Finantza aktiboak	0,00	0,00
9. Kap.	Finantza pasiboak	0,00	0,00

**2.260.861,26 €****2.480.677,00 €****Gastuak****2022****2023****A) Eragiketa arruntak**

1. Kap.	Pertsonal gastuak	791.504,43	802.996,70
2. Kap.	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	896.275,83	942.797,30
3. Kap.	Finantza gastuak	0,00	0,00
4. Kap.	Transferentzia arruntak	430.781,00	449.533,00
5. Kap.	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	70.000,00	90.000,00

**B) Kapital-eragiketak**

6. Kap.	Inbertsio errealak	72.300,00	195.350,00
7. Kap.	Kapital transferentziak		
8. Kap.	Finantza aktiboak		
9. Kap.	Finantza pasiboak	0,00	0,00

**2.260.861,26****2.480.677,00**

# Alegiako *Xarma* berreskuratzen

Galtzeko arriskuan den zuhaitza babestu eta indartzeko asmoarekin, *Xarma* populazioa kokatzen den lursaila erosi du Udalak



**A**legiarren gehiengo batek jakin ez arren, herrian altxor berezi bat dugu; *Xarma* izeneko zuhaitza hain zuzen ere (*Carpinus betulus*). Zuhaitz hau Europa erdialdean zabalduta dago baina bere habitataren fragmentazioaren ondorioz, populazio txikiak soilik aurki daitezke, normalean erreka eta bailara itxi eta ospeletan. Bere hego-mendebaldeko muga Euskal Herrian kokatzen da, Nafarroa ipar-mendebaldeko eta Gipuzkoa ekialdeko baso txikietan. EAEko populazio bakarra Gipuzkoan kokatzen da, Alegian hain zuzen ere. Urritasun honek *xarma* EAEko espezie mehatxatuen katalogoan sartzea ekarri zuen, galtzeko arriskuan dauden espezieen artean gainera.

Populazio honek bi mehatxu nagusi ditu. Alde batetik, jabetza pribatuko terrenoetan dago, beraz, egurra lortzeko aprobeixamenduaren edo egun duen erabilera aldatzearen eraginez, populazioa, eta ondorioz, espeziea desagertu liteke Euskadin. Bestetik, oso ale gutxi eta haiek isolatuta daudenez, espeziea bereziki kaltebera da.

Herriandugunberezitasun hau kontuan izanda eta gure biodibertsitatea babestu eta sendotzeko asmoarekin, Alegiako Udalak 2019an lanketa bat abiatu zuen Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera. Proiektuaren helburua Alegiako *Xarma* populazioak dituen aipaturiko bi mehatxu horiei aurre egitea izan da eta egin diren ekintza garrantzitsuenak honakoak izan dira:

-*Xarma* populazioa kokatzen deneko lursaila erosi du Udalak. Modu



honetara lursaila babestu eta berau kontserbazio helburuetara bideratuko dela bermatzen da.

-Aranzadi Zientzia elkarteko botanika sailaren gidaritzapean *Xarma* ale berriak sortu dira. Laburki azalduta, bi modu ezberdinetan egin da ale berriak sortzeko saiakerak. Alde batetik, zuhaitz helduetako haziak bildu eta laborategian ernaltzeko saiakerak egin dira. 2019ko udazkenean 500 hazitik gora bildu ziren, baina laborategian eginiko ernalketa probetan denek huts egin zuten. Beste aldetik, 2019ko udazkenean *Xarma* aleen adar-aldaxka indartsuak zerrarekin moztu eta zintarekin markatu ziren. 2020ko udaberrian, bertatik jaiotako aldaxka berriak eskuratu ziren. Bildutako 147 adar-aldaxkak Gipuzkoako Foru Aldundiak Urnietan duen Arizmendiko mintegira eraman eta bertan soilik bostek biziraun zuten

hasiera batean. Adar-aldaxka hauek bi urte eta erdiz eduki dira mintegian hazten eta sendotzen eta azkenean bi alek soilik biziraun dute. Bi ale hauek 2022ko abendua hasieran landatu ziren Alegiako *Xarma* populazioa sendotzeko.

Proiektuaren balorazioa gazi-goza izan dela esan daiteke, alde batetik, mehatxu nagusienetarikoa bat, lur jabetza pribatuarena hain zuzen, gaudituz delako. Bestetik ordea, ale berriak sortzeko eginiko esfortzu guztiaren ondoren soilik bi ale berri lortu dira. Edozein kasutan, honetako populazio honen zaugarritasuna agerian uzten du eta berau babesteko behar handia dagoela.

Amaitzeko, aipatu beharra dago proiektuaren finantzaziorako Alegiako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren diru laguntza izan dela.

# Edukiontzi bidezko bilketa

Herri galdeketatik ateratako emaitzak gauzatzeko emandako hitza betez, edukiontzi bidezko hondakin bilketa sistema martxan da

**A**zaroaren 4an eta 5ean egin zen Alegian hondakin bilketa berraztertzearen inguruko herri kontsulta. Hiru aukera jarri zitzaizkien mahai gainean alegiarrei. Orain arte indarrean izan den atez-ateko sistemarekin jarraitzea, sistema misto bat ezartzea edo edukiontzi bidezko sistema jartzea. 572 pertsona izan ziren kontsultan parte hartu zutenak; botoa emateko eskubidea zutenen %39,72a. Eta emaitza argia izan zen.

Edukiontzi bidezko bilketa sistemak 356 bozka jaso zituen, %62,24. Atez-atekoarekin jarraitzearen alde 182 herritarrek eman zuten botoa, %31,82. Azkenik, sistema mistoak 31 boto jaso zituen, %5,42. Horrenbestean, herritarrek edukiontzi bidezko hondakin bilketa sistemaren aldeko apustua egin zuten.

Udalak kontsulta egin aurretik esana zuen herritarren hitza errespetatu eta gauzatu zuela. Bada, Tolosaldeko Mankomunitateko batzarrak abenduan onartu zuen Alegiako bilketa sistema aldaketa ofizialki eta harrezkero, edukiontziak jartzeko eremuak atontzeko lanak egin dira eta Mankomunitatea Alegian jarri beharreko edukiontziak jaso zain egon da.

Guztira herriko sei puntutan jarri dira edukiontziak. Bideberrieta kalean Kalebehera aldean, osasun etxearen pareko autobus geralekuaren alboan, Kalegoran, Larraitz auzoko 3 eta 38 zenbakien aurrean eta Beistin auzoan. Leku horietan guztietan egin dira ere-




muaren egokitzapen lanak. Izan ere, bilketa kamioi handien bidez egingo da eta beraz, ezinbestekoa da eremuak ongi egokitzea kamioiek behar bezala lan egin ahal izan dezaten.

Otsaileko lehen astean jarri ziren edukiontziak. Hemendik aurrera herritarrek nahi dutenean izango dute hondakinak dagokien edukiontzira botatzeko aukera. Sistema berriak jada egin ditu lehen asteak martxan eta hasieran denok behar izan dugun egokitze prozesu baten ostean, Udalak orain arte herrian izan diren birziklapen maileri eustea espero du.

Bide batez, tamaina handiko hondakinak edukiontziak dauden edozein puntutara atera ahal izango dira, ostegunero 20:00etatik 22:00etara.

## Kafe kapsulak

Kafe kapsulak birziklatzeko edukiontziak ere jarri dira Alegian. Mankomunitatearen ekimenez, eskualdeko herri



guztietan jarriko dira edukiontzi horiek eta Alegian bi ditugu. Bat Larraitz auzoko hiru zenbakiaren parean dago eta bestea osasun zentroaren pareko autobus geltokiaren ondoko puntuan.

Kapsuletako kafe hondarretatik landareak edo perretxikoak lortzeko kafe-hondarren substratua, hazi-bolak eta konbustiorako briketak eta pelletak lortzen dira. Birrindutako kapsuletatik berriz, galautsa lortzen da paperontziak, kuboak eta listoiak fabrikatzeko.

Mankomunitatearen aurreikuspenen arabera, 60 edukiontzi jarrita urtean 1.750.000 kapsula biltzea espero da.



## Asfaltatze lanak egin dira

Errotako biribilguneetik Fabrensa industriagunerako bidean eta Hegoalde kalean errepideko lurzoruaren egoera hobetu da

2022ko azken egunetan asfaltatze lanak egin ziren herriko bi puntutan. Zehazki esateko, Errotako biribilguneetik Fabrensa industrialdera doan errepide zatian eta Hegoalde kalean egin dira errepideko lurzorua hobetzeko lan horiek. Bi eremuak nahikoa egoe-

ra txarrean zeuden eta Orsa enpresak gauzatu dituen lanei esker, puntu horietan asfalto berria bota da lehen zeuden zuloak estaliz. Funtsean, bertatik pasako ibilgailuen segurtasuna hobetu da.

## Jarri orduko botata

Languarreko eremuaren inguruko informazioarekin eta erabilera arauekin abenduan jarri zen panela botata agertu zen urtarrilean

Guztiz gaitzesgarriak dira horrelako ekintzak. Udalak panel bat jarri zuen iragan abenduan Languarreko sarrean eta lehenik zeudenak berri. Eremuaren inguruko informazioa eta bertako erabilera arauak agertzen ziren bertan. Bada, urte berria hasi orduko lurrean agertu da panel hori. Abenduaren 28an ateratakoa da panela bere le-

kuan erakusten duen argazkia. Lurrean agertzen dena berriz, urtarrilaren 17koa da. Ez da gaztetxo batzuen ekintza izan. Ibilgailu batekin tiraka, panela lurrera lotzen zuten oinarriak eta guzti atera dituzte eta aparkalekura eraman dute arrastaka. Udalak ekintza hori salatu nahi du eta antzekorik ez errepikatzea espero du.



## Tokiko Energia Komunitatea

Alegian sortu nahi den energia komunitatearen inguruko lehen bilera irekia egingo da martxoaren 13an 18:30ean kultur etxean

Gipuzkoako Foru Aldundia probintzia mailan sustatzen ari den proiektu bat da Tokiko Energia Komunitatea. Alegiako Udala eta Aldundia elkarlanean ari dira herrian sortu nahi den komunitate energetiko horren ingurukoak lantzen. Eskolako teilatuan egin den instalazio fotovoltaikoaren bidez funtzionatuko luke energia komunitate horrek eta martxotik aurrera gizarteratze faseari ekingo zaio.

Gauzak horrela, martxoaren 13an, astelehena, Tokiko Energia Komunitatearen inguruko lehen bilera informatibo irekia egingo da 18:30ean kultur etxean. Egitasmoa lantzen ari diren hizlariak gaiaren inguruko azalpenak emango dituzte eta bertaratzen diren herritarrek ere izango dute dituzten galderak eta zalantzak plazaratzeko aukera. Udaletik herritarrak saio horretan parte hartzea animatu nahi dira.